

piipilean

Soraluzeko Hamabostekaria 56. alea 2002ko urriaren 11a



Ekuatoriar komunitatea

“Oso gustora gaude hemen” CesarA.



**Tornileria-estanzazioa
eta
extruzioa hotzean**



GOL, S.A. Industriak

Sagar Erreka, 19 45 PK

20590 SORALUZE

Tfnoa. 943 75 21 00 / <http://www.gol.es>

FER. S.A.
Industriak


Eskulanetarako tresnak

Industrialdea, 17 - 20590 Soraluze

Tlfonoa: 943 75 20 00 Faxa: 943 75 19 80 E-maila: fer@nexo.es

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



kutxa

zuri esker
gracias a ti



MAPFRE
MAPFRE SORALUZE

JUAN LUIS IBARZABAL ARRIETA


JULIA IBARZABAL ARRIETA

Gabolats, 5 b

Tel.: 943 75 16 58 - 943 75 30 12

Eskuko telefnoa: 649 49 79 59 Faxa: 943 75 16 10
20.590 SORALUZE

Mendata taberna



Berezitasunak:
Txipiroiak, Barazki
Menestra, Gixauak...
Asteburuan plater
konbinatuak
Enkarguak etxerako
(bazkariak eta afariak)

Kalebarren, 5

Tfnoa 943 75 13 87



Kontuz Perretxikuekin I

JON BASAURI

Gero eta ugarixagua da herri honetan perretxikozalia, gogorrago edo makalago, desoreka psiko-mikofilikoren batek jota bizi dana. Udazkeneko, lehenengo eurixekin batera, gaixuok "boletus magnificus" edo onguen berri jakitzia nahi izaten dogu, alkarrerri ziharkako galdera-erantzunak egiñaz; "Da?," "Tira..."

Berba gitxiko jentia da perretxikozalia, sekretu gordetzailia, baiña badago hala eta be ardurabareko kamaradarik, informaziñua emoten eskuzabala, eta holako bati esker jakin genduan Callesek eta bixok botaldixa zeguala Nafarruan, Gizurrona izeneko herri txiki baten onduan. Ez dot luzaruan jardungo batallita honekin (badakit jente askori ez jakola interesauko), baiña datu batzuk biharrezkuak izango dira artikulu honek zentzurik izan daixan.

Aittatutako lekua baso haundi bat da, illuna, behin barrenian zarenian erreferentzia punturik barekua.

Bertan ez galtzeko eta autua beti nun dagan jakitzeko guk iparorratzatza eruaten dogu. Egun hartan bebai. Erabiltzeko erreza da; norabide bat jarraitu beti haruzkuan, eta kontrakua bueltan. Hola ba, hantxe genbizen bixok eguna argitu ordurako baso barrenian, onguak batu eta batu beti direkziño baten. Haura zan disfrutatzia haura! Ttak! Hemen bat! Ttak! Han beste bat. 12xak alderako kargauta goiazten, poltsak beteta. Autura juateko ordua zan, bertan poltsak hustu eta gehixagon billa buelta egitteko.

Baiña orduan zer edo zer topau genduan: 20 bat metro luze eta 20 bat metro zabaleko laugune bat, dana ongo beltzez beteta. Boeing! Hamen 8. Boeing! Hemen 10! 15!..eta hola 100 baiño gehixago. Siñistu ezinda, saltoka eta kurrixka batian hasi giñan, ikusten gendena telefonoz lagunerri erretransmititzen. Ikusgarrixa zan benetan, edozein perretxikozalendako edena.

Pasautakuak baztertu eta

sanuenak aukeratu genduzen: 95 ongo beltz. "Zela eruango jittuagu danak?" izan zan galderia. Poltsak beteta genkazen. "Oin autora bagoiazik gero leku hau berriz topatzia gaitza izango dok", "Bai". Aukera desberdiñak aztertu ostian: "Bajakixat! Pulgarci-ton moduan egingo juagu. Baiña bidian ogi apurrak laga biharrian onguak lagatzen!" "Ja, ja, ja!" "Eta kazariren bat badator atzetik danak batzen?" "Ja, ja, ja".

Harrotuta genden, euforiko, eta prest ahal zan ongorik gehixen aldiaren eruateko. Jartsiek motxila antzerako batzuk egin genduzen, transporterako. Beteta zeren poltsetan onguak sartu genduzen, asko, eta ongo zaharrenak eta zatarrenak sakrifikau. Kilo mordua danera. "Martxa" esan, eta autuan billa jua giñan, iparorratzak agintzen zeban norabidian, pozik eta harro. Baiña jakiña da fandangauk bueltia ekartzan dabela, eta bueltia datorren alian ezagutuko dozue. Hurrengo alerarte.

Telegrapak

Zein zan aurreko lehiaketako galderia?. Stop. eta erantzuna?. Stop. eta irabazlia?. Stop. danok egiten dittu-gu akatsak, ezta?. Stop. Aurten negu latza pasau bihar dogu Pil-pileanen. Stop. "ezezagun" batzuen kulpaz apurtutako kristaletik barrura sartuko dan haize freskua hartzen. Stop. hurrengoan ez bildurtu eta sartu barrura gure arratoi txakurrarekin jolastera. Stop. txuri beltza data, ez du koxk egiten... Stop. Goizeko 19:40an autoestpista mordo bat ikusten baodozu. Stop. mesedez gelditu!. Stop. zure seme edo alabia izan leike Pesak bide baztarrian laga dabena. Stop. Gilako lapurrak atletickzalien bazkarirako dirua eruan dau. Stop. gixajua!. Stop. Astelenero martxa eta giro ederra Udaletzeko pleno aretuan. Stop. Gogo eta DJrik onenak. Stop. animatu eta parte hartu. Stop. Gaiz aldatuta, kaza denboraldixa zabalik dao. Stop. gogoratu, errekkako paittak danonak dirala. Stop. perretxikuak be berdin, berdin. Stop. gogoratu danonak dirala (943751304). Stop. eta ez ahaztu hil aurretik ongo tokixak nun daren kontatzia batenbati. (943751304) Stop. Hurrengo alerarte. Stop. Ondo bizi!. Stop. edo ahalegindu behintzat!

Erreportaia

"Cesar Avecillaren familia da Soraluzera etorri diren ekuatoriar familietako bat. Cesar eta Cristina (bere andrea), Stalin eta Steven semeak eta amagiñarriba, beste ekuatoriar bikote batzuekin batera elkarrekin bizi dira Ezoz Bi-deko etxe batean. Ez da luxuzko bizilekua baina gustora daude, pozik, eguneroko bizimodua duintasunez egiteko moduko leku bat aurkitu dutelako."



Ekuatoriarrek euren bizimoduaren berri eman digute



Argitaratzailea:

Pil-pilean Kultura Elkarte
Frontoi kalea 5. behe, PK 27 - 20590 Soraluze.
Telefona 943 75 13 04

Zuzendaria: Gurutze Ariznabarreta

Erredakzio burua: Egoitz Unamuno

Erredaktoreak: Enara Agirre, Eguzkine Aldazabal, Gurutze Ariznabarreta, Jon Basauri, Xuban Catalan, Ugaiz Catalan, Aitor Madrid, Jon Oregi, Oier Oregi, Eduardo Pombar, Egoitz Unamuno eta Arianne Unamuno.

Publizitatea: Jon Basauri

Logotioa: Jon Gabilondo
(943751304 tel.)

Banaketa: Pil-pilean **ekoizpena:** 1.850 ale

Inprimategia: Gertu Koop. **Azala:** Aitor Madrid

Diseinua eta Maketazioa: Aitor Madrid

I.Z.K.-a: G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Pil Pileanek ez du bere gain hartzen aldizkari esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



SORALUZeko
UDALA



EUSKO
JAURLARITZA



GIPUZKOAKO FORU
ALDUNDIA

Agenda

Nafarroa Oinez

Urriaren 20xan
Autobusian izena emote-
ko: Gaztelupe, Gila eta
Arrano tabernetan.
Pil-pileanek antolatuta.

1.959AN JAIOTAKOEN BAZKARIA

Azaroaren 2an, Txurruka

jatetxean. 14:30etan
Izena emateko: Urriaren
23^a baino lehen.
943 75 15 81Telefonoan.

**KILOMETRUETAN
SARITU ZENBAKIAK**
2034, 2139,9351,6367,
26058, 49962, 47035,
2300,15545,20199,
12806,12219.

hildakuak

Blanca Bolunburu
Ezkonduek
Mari Carmen Gonzalez
Victor Manuel Barrios

Mercedes Perez
Jose Javier de los Santos

Iñigo Eguren
Begoña Gomez

Adi, gazte!



LANA

Oiartzun (kale-garbitzailea)

Oiartzungo Udala. Eskola Ziurtagiria edo titululu baliokide bat izatea. B motako gidabaimena izatea. Udalean obra eta zerbitzuetako langile bat (kale-garbitzailea). 2002-10-21 bitartean. OIARTZUN-GO UDALA: 943 490142

Amoribieta-Etxano (Informatika)

Amorebieta-Etxanoko Udala. Informatika-arloko LH IIko titulua edo baliokidea edukitzea.2. hizkuntza-eskalkizuna. 2002-10-22 bitartean. Amorebieta-Etxanoko Udala 94 6300002

LEHIAKETAK

Pintura lehiaketa

Donemiliagako Udala. Lehen saria: 601,01. Teknika, neurria eta gaia: libreak. Gutunazal batean egilearen datuak, telefono-zenbakia eta lanaren izenburua agertuko dira. 2002-11-04
Donemiliagako Udala Andia kalea, 9
01208 Ordoñana 945 300472 .

Argazki lehiaketa

Aguraingo Udala. Gaia: Ekologia. 1. saria: 180,30 _ . Gaia: Erretratuak zuri-beltzean. 1. saria: 210,35 _ . Gutxienez 3argazki eta gehienez 5 aurkeztu behar-ko dira lehiaketa parte hartzeko. 2003-09-30 (14:00ak arte). Aguraingo Udala 945 300155.

Argazki rallya.

Eibarko Kirol Kluba. 2002ko urriaren 20a. Lehen bilduma: 60 euro eta garai-kurra. Antolatzaileek derrigorrezko ibilbi- de bat ezarriko dute eta, era berean, rallyaren gaiak ere adieraziko ditu. Materiala bertan. 2002-10-20 bitartean. 943 201904.

IKASTAROAK

Zurgintza ikastaroa

Sartu. Langabeei zuzendua. 845 ordu teoriko-praktikoak.. Zuraren arotzeriako Lanerako Prestakuntzako ikastaroa. Datak: 2002ko urriaren 14tik 2003ko apirilaren 30era. Ordutegia: astelehene- tik ostiralera, 08:00etatik 14:30etara. 2002-10-11 . SARTU. 943 472426 (Beatriz). Doakoa

Makina-erreminta ikastaroa

ANTONIANO IKASTETXE POLITEKNI- KOA. Langabeei zuzendua. 595 ordu, 300 orduko praktikak. Makina-erreminta konbentzionalen eta CNC makina-erre- minten operadore izateko. 2002-10-21 bitartean. 943 830647 (Leire edo Manu). Diruz lagundua.

Tel. 900 110 111

Deialdi hauen inguruko informazio gehiago jaso nahi baduzu, deitu goiko telefonora. Gipuzkoako Foru Aldundiko Gazteria Zerbitzuaren Web orri berrian ere bai: www.gipuzkoa.net/gazteria.

Zorion agurrak



Sara Hernando
Zorionak potxolaaa!!!!
2002 - 10 - 10 7 urte
Jarraitu orain artean
bezela poxpolin.
Muxu bat
etxekuen partez.



Ion Ordax
Zorionak !!!!
2002 - 10 - 15 4 urte
Ondo pasau zure egu-
nian ta txintxo txintxo
portau eech
Etxekuen partez.



Billy Yanguas
Zorionak!!!
2002 - 09 - 28
Aupa mutiltxo segi
beti bezain alai.
Etxekuen partez.



Juan eta Felix Heras Yanguas
2002-10-19 4 urte
Zorionak bikote!! Ea beti bezain irrifart-
su eta formal jarraitzen dozen. Muxu
bat etxekuen partez



Jon Elizburu
Zorionak!!
02 - 10 - 2 13 urte
Asko maitte zaittugu!
Etxekuak

Jone Oregi
Zorionak presiosa!!
02 - 10 - 6 13 urte
Segi beti bezain alai!!
Etxekuak

Teresa Oruesagasti
Zorionak !!
02 - 10 - 15 94 urte
Muxu haundi bat!
Etxekuak



Ane eta Marina Gabilondo
2002-10-29 4 urte
2002-11-9 urte1
Zorionak politak!! Segi beti bezain alai.
Musu handi bat ama eta aitan partez.



Idonia Elizburu
Zorionak presiosa!!
02 - 10 - 5 40 urte
Zein jatorra zaran.
Etxekuak

Maialen Oregi
Zorionak !!
02 - 10 - 14 17 urte
Gero eta polittago
zare!
Etxekuak

Sabina Oregi
2002-10-5 19 urte
Holako neska gazte
polittenandako muxu
handi bat. familia-
kuak


Gutunak

Balego eta balitz, alkarren ondoan dabiliz Kaixo Pedro Jose!
Zu bahitu zintuztenetik urte- bete pasatu denean eskutitz hau idaztiari ekin dotsau. Hamabi urte kartzelan pasatu ondoren, 3/4 bete zinuzen. Zelako berri pozgarrixa guretzat! Tartean kristal ziki- nik izan barik zu besarkatze- ko, musukatzeko aukera izan behar genuen; hamaika ipuin elkarri kontatu, Plaentxiako edozein txokotan; txorixeri begira Karakate aldeko alfona- bra gainetik ibili; elkarrekin Sagar Erreka aldeko bazterrei begiratu gozatu... baina berriro be, legia ez dabe bete. "Oinarritzko eskubideak de- fendatu behar ditugu legea eskuetan hartuta" bezalako leloak entzuten ditugu behin eta berriro, berba ein bai, baina askoz gehixao eiten ez dabenak. Ze eskubide? Preso dagoenak

baditu bere eskubideak: bere jaioterritik ahal den eta gertuen egoteko eskubidea, ikaste- ko behar dituen baliabideak (materiala, liburuak...) izate- ko eskubidea, gau ta egun egon behar den lekua garbi izateko eskubidea, senide eta lagunekin harremak izateko eskubidea. Eta horrela betet- zen dira eskubide horiek: etxetik ahal den eta gertuen zare - Castellonen - ; ez dau- kazu inongo arazorik ikasteko - apuntiak lortzeko ere nahi- kua lan!-; garbitasuna, lo eta bizi zaren zeldan - labe zomorroz josita - harremane- tarako oztoporik ez - zortzi hilabete laguneri bisitatzeko instantziarik eman barik - euskeraz idatzi eta hila- beteetara jaso-. Zer lege? Kode penalak dio presoak baldintzapeko aska- tasuna izango duela kondena- ren 3/4 bete ondoren. Zuk hiru laurdenak bete dituzu

(eta zure moduan 109 preso dare) eta non dago baldintza- peko askatasuna? Nor epaitu- ko dabe oin legia ez betetzia- rren, zu baldintzapeko askata- sunik ez dozulako? Zure bizitzako 12 hilabete, 52 aste, 365 egun, 8.760 ordu, 525.600 minutu lapurtu dot- suetz lotsa barik. Ez dago eskubiderik! Zure konpartit- zeko geunzkan 12 hilabe- te,52aste, 8.760 ordu, 525.600 minutu lapurtu dos k u e z ! Noizko legia bete? Noizko eskubidiak erres- petatu? Noizko zu etxian? Galdera horien erantzuna hurrengo eskutitzian izatia espero dogu. Bixen bitartian hartizuz gure muxuak eta elkartasun besarkadak. Laster arte.

Soraluzeko Etxerat

Zer irizten dotsazu?**Zer moduz hartzen dittugu Plaentxian etorkinak?**

Urbano
51 urte
Ajustadoria

Nere ustetan, herrixan badao lekua danondako. Ikusten da lanian eta bada-bizela, eta ondo integratzia lortzen badabe primeran. Ez jata iruditzen herrixak eragozpenik jarriko dabenik.



Arantxa Gabilondo
63 urte
Liburutegiko arduraduna

Herrixak ondo hartzen dittuala pent-satzen dot nik. Integrau be, nahiko ondo itxen dia. Kanpotar ume batzuk adibidez, euskaraz be itxen dabe herriko lagunekin. Jente langilia eta majua dala ikusten da.



Jon Eloi Bolunburu
44 urte
Tornillerua

Nik uste dot ondo integratzen dirala. Nik ez dot inor ezagutzen, baina uste dot herrixa ez dala arrazis-tia eta iruditzen jata momentuz behintzat ondo integratzen dirala.



Mirari Barrutia
44 urte
Osakidetzako langilia

Oso oso ondo be ez dia hartzen. Nere ustetan, jendiak ez dotxe bihar beste kaso itxen, laguntasun gutxi emoten jakuela. Nik uste dot, gure aldetik gehixau jarri ezkerro, hobeto moldau-ko ginakela danok.



Leire Mendizabal
29 urte
Okiña

Herrixan oso ondo hartzen dittugula pentatzen dot nik, plaentxiarrak oso jatorrak garalako. Ikusten da kanpo-tarrak ez dabela atzera eragiten.



Sonia Mendo
16 urte
Ikaslia

Nere ustetan, herriko jende gehixe-nak ondo hartzen dittu. Hala ta guz-tiz, jende arrazistia be badao herri-xan. Baina atzerritarrak eskubidia dake ona bizitzera etortzeko.

Ugaitz Catalan eta
Eneko Beretxinaga



HNOS. BENITO ANAIAK

ETXEKO ETA SUKALDEKO ALTZARIAK

Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

Santa Ana, 26 • Tel. y Fax (943) 75 20 47 • 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)



BELARRAK

LORADENDA ETA BELARDENDA

EROSKETAK ETXERA DARAMATZAGU

Santa Ana, 2 behea
Tel.: 943 75 30 11
Eskukoa telfnoa: 646 43 90 40
20.590 SORALUZE



Lapurretak Gilan eta Golen

Astearte gauean bi lapurreta izan ziren herrian. Lapurretetako bat Gila tabernan gertatu zen. Lapurrak ateko krital bat hautsi eta barrura sartu ostean, kajako eta atletikzaleen bazkarirako bildutako dirua, puruak eta baileys botila bat eraman zuten. Bigarren lapurreta, Gol lantegiak Mendiola poligonoan duen almazenean gertatu zen. Lapurrak atea bortxatu eta barrura sartu baziren ere, ez zuten ezer eramaterik izan “torniluez aparte ez dao ezer asko eta”.



Matxinatuen korrikaldia astelehenean



Datorren astelehenean, arratsaldeko 18:00etan helduko da Soralezera Matxinatuen Korrikaldia. Ekimen honek, “Espainiar eta Frantziar estatuen erasoan aurrean desobedientzia zibilarren bidea bultzatzea” du helburu. Sardea sinbolo gisa hartuta, Euskal Herri guztian zehar joango dira herrietan geldialdiak eginez. Astelehenean harrera ekitaldi bat egingo zaio korrikaldiari. Ondoren, “euskaldunon eskubi-deak errespetatzen ez diren herriko 4 tokitan, parodiak egingo dittugu; anbulategian, Cañones pareko armari frankistaren parean, BBVAren parean eta Correos parean. Beti ere, ekimen baketsuak izango dira; aldarrikatzaileak eta umoretsuak”.

Abadian agur afaria

Joan zen ostiralean agur afaria egin zioten Jokin Mitxelena herriko abade-ari Ezoziko Armendi jatetxean. 60 Lagunetik gora batu ziren afarira, 6 urtean Soralezeko abade izan denari agurra emateko. Jokinek oso gustora jaso zuen berak zuzendu duen parrokiako fededunen omenalditxo. Elizako organujole izan den Ines Landeras Mutrikuarra ere agurtu zuten.. Hilaren 12an, Pilarika eguneko San Rokerako prozesioarekin amaituko utziko ditu Jokinen Soralezeko parrokiaren ardurak.



Apurketak Pil-Pileanen lokalean



Urriaren lehen asteburuan ezezagun batzuek, Pil-pilean Euskara Elkarteko lokaleko lehio bateko kristala apurtu zuten. Ezezagunek harri handi bat erabili zuten kristala apurtzeko baina zorionez ez zuten bestelako apurketarik egin.

Hitzaldiak Itxaropenan



Urriaren 15ean, datorren asteartean arratsaldeko 4:30etan izango du hasiera Itxaropenan antolatu duten hitzaldi sortak. Lehenengo hitzaldia “Bizimodu osasuntsu eta bizitza kalitatearen ingurukoak izango da eta Ana Fernandez psikologoak eskeiniko du. Hitzaldi hauek parte hartu nahi duten guztiek, aurrez izena eman beharko dute Itxaropenako bulegoetan bertan. Adineko pertsonen eguneroko bizimoduaren inguruan sortzen zaizkien zalantzak argitzea da helburu nagusia.



Barra kargadore automatikoak
eta makina bereziak

ETXEHUN, S.A.L.

Mendiola Industrialdea 14-5

Tfnoa 943 75 18 91

Faxa 943 75 24 58

E - maila: etxehun@teletel.net

etxehun@euskaltel.net

20590 SORALUZE

Gipuzkoa



SAN ANDRES
Iturgintza

*Iturgintza, Gasa, eta
Berogailuak
Sukaldeak eta bainuak*

Errebal kalea 2 behea

Tfnoa 943 75 16 46

Konpromisoak hartzeko ordua



Urriaren 3an egin zen Udaletxean, herriko 37 gizarte eragilek urtebetean zehar egindako lanaren ostean osatu den Euskararen Plan Estrategikoaren aurkezpena. Aurkezpenean, prozesuan parte hartzen diharduten gizarte eragileetako batzuk, Udaleko teknikariak eta Kontseiluko ordezkariak izan ziren.

Orainarte egindakoaren errebaso bat egin zuten eta hemendik aurrera urte bukaerarte zabalduko den "Konpromisoak Hartzeko Fasea"ren nondik norakoak azaldu zituzten. Prozesuan parte hartzen diharduten taldeek, euskararen aldeko zein konpromiso hartzeko prest dauden erabaki beharko dute orain.

Udal batzarra ateari itxita

Astlehenean egin zen Udal Batzarra ateari itxita egin zen azkenean. Batzarra hasi orduko, Alderdi Popularreko zinegotziak Euskal Presoen aldeko argazkia kentzeko eskaera egin zion alkateari eta honen ezezkoa jaso ondoren, "ETA EZ. ETA NO" pegatina jarri zuen bere mahaiaren gainean. Ondoren, tentsio momentuak bizi izan ziren Alderdi Popularreko zinegotziaren eskariz, alkateak

aretoan bildu zen jendea "Faxistek agindu morroiek bete. PP eta PSOEek ia 600 Soraluzetarren ahotsa ixilarazi nahi dute" zioten kartelak jeitsi zitzaizkion eskatu zirenean. Alkateak, jendearen ezezkoaren aurrean, batzarra beheko solairura aldatu eta Zinegotzi Gelan, ikuslerik gabe eta ateari itxita egiteko erabakia hartu zuen.

Sazian 320 aparkamentu

Izartu egitarauaren baitan, dageneko hasita daude Sazia inguruak urbanizatzeko proiektuaren lanak. Urbanizatzeko lanetan; ubideak eraiki, urak bideratu, ingurua argiztatu eta errepidea asfaltatuko dira. Proiektuaren barruan, 320 aparka-


mentu egitea aurrirakusten da. Baina alkateak jakinarazi digunez, lehenago finantziazio bideak aurkitu beharko dira.

Urte amaierara bitartean, lanak amaitu artean, bidea itxita izango da.

Iturri berria Ezozin

Izartu egitarauaren baitan, Ezozin iturri berri bat egiteko erabakia hartu du Udalak. Dirudienez, Ezoziko ermitaren atzekaldean lurpeko ur iturri bat aurkitu da. Udalak ur hauek ateratzeko Sondeos Urbillak aurkeztutako 11.452 eurotako aurrekontua onartu du dagoeneko eta berehala hasiko dira ura ateratzeko lanak. Ezoziko Iturri Zaharra estali zenean gelditu zen hutsunea bete nahi da era honetan. Iturria parkearen sarreran egingo da, ezkerreko aldean.

Atxuriko parkearen proiektua onartu da



Izartu egitarauaren baitan, Udalak Atxuri kalean, Hospital Zaharra zegoen eremuan egingo den parkearen proiektua onartu du. Proiektuak 293.822,81 euroko aurrekontua dauka eta hil honen bukaera alderako lanak esleituko balira, azaroan lanak hasi eta urte hasierako lanak amaitu izatea aurrirakusten da. Parkeak, iturri bat izango du erdi erdian, jartzeko bankuan, zuhaitzak eta lur azpiko zakarontziak ere bai.

Egoitz Unamuno

 **PASCUAL CHURRUGA, S.A.**

Hotzian eta beruan
jotako tornilluak

Telef. 943750006 eta 943751600 Faxa 943752461
E-mail: general@pascualchurruga.com
Errekalde 21 20590 SORALUZE

Telefona 75 24 09

ARRANO
tabernia

"Giro euskalduna eta sanua"


ETORRI ETA GOZATU

EUSKAL PRESO, DEPORTATU ETA EXILIATUAK

 **etxera**

Ekuatoriar komunitatea Soraluzen

“Oso gustora gaude hemen” C. A.



Cesar Vecilla, bere senide eta bizilagun ekuatoriarrekin Ezozi bidean alokatu duten etxeko sukaldean.

Gerra Zibilaren ostean, Espainiako leku askotatik iritsi ziren etorkinak Euskal Herrira. Azken urteotan, berriz, Europa Ekialdetik, Afrika Iparraldetik, Herri Arabiarretatik, Asiatik eta Hego Amerikako herrietatik iristen dira etorkinik gehienak. Euren herrietan bizi duten miseriari ihes egin nahian, milaka kilometro egin behar izaten dituzte bizimodua ateratzeko leku hobe baten bila.

Soraluzera ere herri ezberdin askotako jendea etorri da azkenaldian, baina beharbada, ekuatoriarrena izango da herrian jatorri bereko etorkin kopururik ugariena osatzera heldu den komunitatea, 45 pertsona ingurukoa. Cesar Vecillaren familia da Soraluze etorri diren ekuatoriar familietako bat. Cesar eta Cristina (bere andrea), Stalin eta Steven semeak eta amagiñarreba, beste ekuatoriar bikote batzuekin batera elkarrekin bizi dira Ezozi Bideko etxe batean. Ez da luxuzko bizilekua baina gustora daude, pozik, eguneroko bizimodua duintasunez egiteko moduko leku bat aurkitu dutelako.

Ekuatoriarrek beso zabalik hartu gaituzte euren etxean. Etxe zahar xamarra da izatez baina ederki atondua eta garbitua daukate. “Etxerik goxoa ez da beti ederrena”, eta horixe da hain zuzen ere ekuatoriarren etxearen kasua. Inguruan familia guztia begira genuela, gaztelania

eder eta landu batez, abegitsu erantzun die Cesarrek egin dizkiogun galdera guztiei. Cesarrek esandakoari esker, herrian bizi diren Ekuatoriarren egoera gertuagotik ezagutzeko aukera izango dugu.

“Santa Ana kaleko etxeak egiten jardun dugu. Nere bi anai eta koinatuak ere nerekin batera lan egin dute”

Ekuadorreko egoeratik ihesi

Cesarrek orain dela 3 urte utzi zuen Ekuador, Madril eta Bartzelonan izan eta gero Gasteizera etortzeko. Egoera ekonomiko txarrak, korrupzioak, aurrera egiteko zailtasunek eta batez ere semei etorkizun hobe bat eskeintzeko gogoak, bultzatu zuten Cesar Europa aldera etortzeko erabakia hartzera. Denen zo-

rionerako, handik urtebetera etorri zen bere emaztea eta aurten etorri dira bere bi semeak eta suiña.

Jatorriz Ekuadorreko Guayas probintziako Yaguachi herrixkakoa da Cesarren familia. 2.000 Biztanle inguruko herria omen da eta bertako 400 herritar baino gehiago omen daude Espainiar estatuko hiri haundietan sakabanatuta. Ekuadorren eskubia omen dago agintean eta botere guztia Estatu Batuen menpe omen dago. Egoera honetan, aberatsak gero eta aberatsago eta behartsuak gero eta behartsuago omen dira eta azken hauek ez omen dute ihes egitea beste irtenbiderik. Gainera egoera hau Hego Amerika guztian zabaltzen ari omen da.

“Gasteiz da ekuatoriarren kapitala”

Euskal Herrira etorri diren ekuatoriarrek ere asko omen dira, Cesarren esanetan “Gasteiz da gure herriaren kapitala. Nere herriko 200 pertsona inguru daude han”.

Soraluzera etorri aurretik, Ermuan, Eibarren.... bizi izan da Cesar, lan ezberdin askotan jardun du eta lagun baten bitartez eraikuntzako enpresari batekin hitzeginda etorri zen Soraluze etxegint-

za alorrean lan egitera; “Santa Ana kaleko etxeak egiten jardun dugu. Nere bi anai eta koinatuak ere nerekin batera lan egin dute”. Hiru urte hauetan horrenbeste herri igaro ondoren, Soraluzen egonkortasun pixkat lortu dutela dio eta ez duela berriz herriz aldatzerik nahi, herriz herri ibiltzea oso gogorra delako.

“Oso gustora gaude hemen”

Cesar eta bere familia oso gustora daude Plaentxian; “jendeak oso ondo hartu gaitu. Sarritan ezer emateak baino, kalean agurtzeak gehiago laguntzen dio bati” diosku. Hasierako harremana izan omen zen zailena, inor ezagutu ez eta abadearengana jo behar izan zuten. Baltegieta ugazabak emandako etxean bizi izan eta gero, hura bota zutenean, asko kosta omen zitzaien alokairuko etxe bat aurkitzea eta eliza inguruko elkarteetan laguntzaz lortu omen zuten bizilekua aurkitzea. Badakite jakin, hemengo begietara, horrenbeste lagun batera eta etxe zahar xamarrean bizitzen ikustea ez dela oso ohikoa baina “zaharrek kontatzen digute, hemen ere, urte gutxi lehenago jendea ez zela bizi orain bezain aberats eta beraz, ez dugu uste jendea horren arraroa egingo zaionik”.

“Errez ohitu gara”

Gainontzean errez ohitu dira hemengo bizimodura. Jateko eta eguneroko bizimodua ez omen dira oso desberdinak Ekuadorren eta hemen. Gainera Plaentxia herri txikia izanik, askoz errezagoa egin omen zaie hemengo bizimoduan integratzea, eurak ere herri txiki batekoak dira eta. Gazteleraz hitzegiteak ere ez omen die gutxi lagundu eta Cesar jakitun da horretaz, “beste herrialde batzuetako etorkinak ez dute gazteleraz egiten eta askoz gehiago kostatzen zaie hemengo jendearekin elkar ulertzea, guri asko lagundu digu horrek”.

Gizonezkoak eraikuntzan eta emakumeak umezain

Euskal Herrian bizi dugun egoeraren nondik norakoak, gutxi-asko, ulertzen badituzte ere (zaharren ahotik batez ere), ez dituzte beren arazotzat hartzen, “horiek beroien (berorika) arazoak dira beroiek konpondu behar dituzte”. Oraingoz, lan kontuak dira Cesarren eta gainontzeko Ekuatoriarren ardura nagusia. Gizonezko gehienek eraikuntza alorrean lan egiten dute eta emakumeek etxean edo umezain. Cesarrek ere eraikuntzan lan egin du oraintsuarte baina orain Azpeitian lan egiten du egur lante-

gi batean. Cesarren esanetan; “Ekuatoriarrek lanera gatoz eta horregatik, enpresariak oso begi onez hartzen gaituzte ekuatoriarrok. Gu ez gatoz beste batzuek bezala besteren lepotik edo inoren laguntzatik bizitzera, gu geure izerdiarekin irabazitakoarekin bizitzera etorri gara. Horri esker ez zaigu falta ez lanik eta ez janik”.

“Ekuatoriarrek lanera gatoz eta horregatik, enpresariak oso begi onez hartzen gaituzte ekuatoriarrok”

“Hemen langileak behar dira”

Espainiar Estatuak Ekuadorrekin sinatutako hitzarmenaren bitartez 800.000 lagunek lortu omen dute baimena espainian sartzeko baina muga hori aspaldi gainditu omen zen. Cesarrendako argi dago zein den jendea etortzen uzteko arrazoia, “hemen langileak behar dira”. Cesarren ustetan jende asko dago papelik gabe eta ez du uste Espainiari egoera hori mantentzea komeni zaionik, “papelik gabe daudenak bizi dute egoerarik txarrena, gizarte segurantzarik eta kontraturik gabe lan egiten dute eta hortik datoz gero delinkuentzia eta horrelako arazo gehienak”.

Ekuadorrera itzultzeko asmoa

Hemen gustora dauden arren, urte batzuk barru Ekuadorrera itzultzeko as-

moa drabilkite buruan Cesarrek eta bere familiak. “Han utzi genituen guraso eta gainerako senideak, lagunak ere bai eta horiek denak gabe bizitzea gogorra da. Norbere jaioterria modukorik ez dago” diosku Cesarrek. Beraz, lau bost urtean lana gogor egin eta diru pixkat egindakoan berriz Ekuadorrera bueltatzea da beren asmoa.


Bitartean, Stalin eta Steven Avecilla anaiak oso pozik bizi dira Soraluzen. Aitortu digutenez neska euskaldunak hangoak baino ederragoak dira. Euskeraz ere ikasi dute zeozer baina zail xamarra iruditu zaie. Irrifartsu eta umore oneko, Soraluzeke kaleetan ibiltzen dira biak.

Beste herri eta herrialde batzuetako jendea etorri da, dator eta etorriko da Plaentxiara, kultura eta bizimodu ezberdina duen jendea. Elkar ezagutzeko irrikiaren bitartez elkar ulertzea da, elkarren arteko harremanak goxotasunez bideratzeko modurik egokiena. Aurreiritzi txarrak baztertu eta komunikatzea.

Hortaz gainera, gu bezelaxe etorkinak ere hezur haragizko pertsonak dira eta beraz, guk dauzkagun aukera eta eskubide berberak dagozkie eurei ere. Ahalegindu gaitezen bada, hori horrela izan dadin. Ondo joan dakizuela lagunak!

Pil-pilean


Egoitz U.



Steven eta Stalin Avecilla anaiak irrifarretsu.

Aerobika

Aerobic-a; gorputza zaintzeko



Aurtengo ikasturteari begira aerobic-a egitea nahi duten kirolariek ordutegi berriak dituzte aukeran. Eskolak joan zen urtean bezala batzokiko frontoian emango dira eta monitorea Marian Begil eta Eider Varela izango dira; Animatu, ez lotsatu eta kirola egin nahi baduzu hurbildu eta probatu.

Hona hemen ordutegi berriak.

Astlehena: 9:00 – 10:00, 15:00 – 16:00, 17:00 – 18:00/ (Umeendako)

19:00 – 20:00, 20:00 – 21:00.

Asteartea: 19:00 – 20:00, 20:00 – 21:00.

Asteazkena: 9:00 – 10:00, 15:00 – 16:00, 17:00 – 18:00, 20:00 – 21:00.

Osteguna: 20:00 – 21:00.

Ostirala: 9:00 – 10:00

Oharra: Umeentzat diren plaza guztiak beteta daude eta oraingo ez dago izen emateko aukerarik. Nagusietan ostera, oraindik ere badago tokiren bat.

Futbola

Hasiera bikaina

Herriko hiru taldeek aspaldiko partez gogoratzen den denboraldi haserarik onena burutu dute eta sailkapeneko lehen postuetatik gertu aurkitzen dira. Hona hemen iraileko azken aste-buruko eta urriko lehen asteburuko emaitzak:

Kadeteak.

Sora 2 – Bergara 0

Aretxabaleta 5 – Sora 0

Jubenilak.

Sora 2 – Billabona 2

Sora 1 – Antoniano 0

Regionala.

Sora 4 – Intxurre 0

Elgoibar 1 – Sora 1

Athleticzaleen bazkaria

Datorren urriaren 19an Athletick zaleen bazkaria egingo da Txurruka jatetxean. Menuaren prezioa, nagusiena 23 euro eta gaztetxoena 8,5 eurokoa da. Izena emateko: urriaren 13^a aurretik egin beharko da Gila, Lonbide eta Auresku tabernetan.

Eskola kirola

Laster hasiko da Eskola Kirola



Antolatutako egitasmoez aparte ere kirol asko egiten dute herriko gaztetxoek.

Eskola kiroleko matrikulazioa amaitu da eta aurreko urteetan moduan aurtan ere gaztetxo askok eman dute izena; taldeko kirolean (futbola, eskubaloia, saskibaloia)74, banakako kirolan (judo, pelota, atletismoa...) 24keta sustapen kirolean (aerobick)18 gaztetxok. Datorren hil hasieran jarriko da martxan aurtengo ikasturteko Eskola Kirola, herriko entrenatzaileekin.

letan (judo, pelota, atletismoa...) 24keta sustapen kirolean (aerobick)18 gaztetxok. Datorren hil hasieran jarriko da martxan aurtengo ikasturteko Eskola Kirola, herriko entrenatzaileekin.

Pelota

Txurruka txapelkun Oñatin

Oñatin jokaturako txapelketan Erlei Txurruka-k Errarte-rekin batera garaipea lortu zuen Olaetxea eta Esnaola bikotearen aurka finalean 22 eta 9 irabazi eta gero. txapelketako pilotaririk onena izendatu zuten.

Herriko beste pilotariek Kluben arteko txapelketan parte hartuko dute.

Aritz Laskurainek azkenaldian hiru partidu jokatu ditu eta mailan asentatzen doala dirudi:

Urriak 2-an Soria hiriburuan

Atxa – Matute 22

Camarero – Laskurain 18

Urriak 7-an Huerta del Rey-n.

Badiola – Laskurain 25

Del Rey – Taberna 20

Urriak 9-an Atarrabian

Agirre – Laskurain 22

Berraondo - Apeztegia 12

Xuban

Jose Mari Mendia

“Aurtengua perretxikua batzia izan da, ez billatzia”

Jose Mari Mendia oso ezaguna da Plazentziako perretxikuzalien artian. Kanpuan ibiltzeke, nahixago dau Plazentziako perretxikua batzia, hemen gitxiago urten arren. “Nahixago dot gitxi daguanian ale batzuk batzia asko daguanian kiluak batzia baiño”. Beran terrenuak: Karakatetik Elusumendira. Ia zeñek harrapatzen daben.

-Zeintzuk dira zuretako 5 perretxikorik onenak?

Onena ongo baltza duda barik, pagadi edo ariztikua. Piñadikua ez da hain ona. Usaiñian eta gustuan alde edarra dago. Bigarren onena zuzia. Hirugarren *zaldun-ziza esaten dotsena (periodikuan irakorri dogu azkenaldixan 2 hildako egon dirala perretxiko hau jatiarren), hamen apenas batzen dana; laugarren gibelurdiña (korosua), eta bosgarren saltsa-perretxikua. Hortik aurrera asko dare mailla antzerakuakin.

-Eta bakoitzak sasoi baten urtetzen dau?

Bai. Zuziak, adibidez, udaberrikan urtetzen dau, martzu inguruan. Honen ondorian etortzen da gibelurdiña. Berandutxuago ongua eta saltsia, eta udazkenian danetik urtetzen dau. Oin 3 edo 4 egunian eurixak egitten badittu beste botaldi bat egongo da. Urteko onena izaten da botaldi hau, udako perretxikuak negukuekin batera urtetzen dabelako.

-Ze klima edo eguraldi da aproposena?


Onena ura da. Euririk ez badau egitten, kitto. Ura eta tenperatura esango neuke nik. Illargixan eragiñian fede haundirik ez dakat. Eta txarrena, asko gaittik, hego haizia da.

-Aurten ongo kilo mordua ekarri dittue kanpotikan.

Bai. Aurtengua perretxikua batzia izan da, ez billatzia. Kiluak eta kiluak ekarri dittue Nafarrua eta Arabatikan.

-Jente larregi dabil?

Hori betikua da. Jentia asko ibiltzen da asko daguanian. Gero, pare bat buelta egin eta ez badittue topatzen, betikuak ibiltzen gara bakarrikan. Ni, adibidez, Untzetara ez naiz sekula juan perretxikotara. Eta han perretxikua daguanian pestia ibiltzen da. Neri gustatzen jata patxadan ibiltzia. 3 bat orduko mendi bueltia egin, nere lekuetan begiratu eta topatzen dotena jeistia. Nahixa-



Jose Mari Mendia eskuetan ongo edar bat dabela.

go dot gutxi daguanian ale batzuk batzia asko daguanian kiluak ekartzia baiño.

-Konpetentzia zela despistatzen dozu?

Danetik egitten dogu. Askotan leku baten batu bai, eta gero kalera beste alde batetik jeisten naiz, beste baillara batetik igual. Zuzatan nere kontrarixua Tomas Ibargutxi da. Bixok alkarrekin lan egitten genduan oin dala 30 bat urte Soralucen errelebuan eta beti alkarri porruak sartzen ibiltzen giñan;”Da, zer egin bihar dok gaur arratsaldian, Tomas?”, “Gaur siestia, nekatuta naok eta”. “Da heuk zer?”, “Nik labadoria konpondu bihar juat”. Eta gero alkarrekin tope egin genduan Legarda aldian. Hortarikuak pasau jakuz guri. Beste behin, ni estranjerotik etorri berri nintzan zuza denboran eta afiziñua zekan lagun bati galdetu notsan:”Hasi dittuk zuzak?”, “Ez, ez hadi juan, oin ez daok ezebe eta”. Baiña ni sospetxiakin juan egin nitzan, eta baita batu be. Baiña handik urteteruzkuan akordau nitzan kutxillorik ez nekala, sasiperen baten edo galdu nebala. Eta handikan aste betera nere lagun hori agertu zan alkondarako poltsikuan nere kutxillua zebala.

-Zela ikasi zenduan zuk perretxikuak batzen?

Kañoi fabrikari aprendiz hasi giñanian 14-15 bat urtekin, hango zaharrak zer edo zer erakutsi zoskuen, edo pista batzuk emon behintzat. Aparte, beti euki izan dot mendirako afiziñua, eta

juan eta jua leku onak ikasi egitten dira. Liburuak be mordo bat dakara, eta jentiak batzen ez dittuan perretxiko asko batu eta liburuetan identifikau izan dittu gero.

-Erakutsiko dotsazuz iñori zure lekuak?

Bat edo bateri bai baiña oindiokan ez.

-Lana dala eta asko ibili zara kanpuan.

Bai, eta hor be gauza kuriosuak eza-gutu dittugu. Europa zentruan afiziño haundixa dago. Txekian zuzak batu izan dittugu. Suizan, adibidez, gehixen apreziatzen dana saltsia da, eta beldurra dago desagertu egingo ete dan. Jentiak oso txixak batzen dittu, eta gobernuak perretxiko bakoitza ze sasoiñan hartu leiken normatibizau dau?. Txinan be jan doguz perretxikuak, baiña ganorabarekuak.

-Perretxikuekin egindako errezeta bat emongo doskuzu?

Neri ongua saltsan gustatzen jata, arraultza barik. Lehenengo berakatzak olixotan dorau bihar dira. Gero ongua bota lamiña mehietan eta suabe-suabe prejidu. Ixa eginda daguanian ardu zuxirix botatzen jako, basokada bat. Beste ordu laurden batian euki bihar da sutan. Bukatzeko, ogi arraiua eta perejil pixkat gaiñian bota, labara sartu bost bat miñutuan eta kanpora. Erreza eta ona.

-Eskerrik asko Jose Mari

Ez horregaittik.

Jon Basauri

Espeleologia eguna Mendaron

Datorren urriaren 26an, Udazkenean Gazteak Gora ekimenaren barruan, Mendaroko haitzuloetan espereologia egiteko egun osoko irteera antolatu dute, Elgoibar, Mendaro eta Soraluze-ko euskara elkartetako Gazte Sailek. Hiru herri hauetako 12-16 urte bitarteko gazteek izango dute bertan parte hartzeko aukera. Izena emateko epea urriaren 22an amaitzen da eta interesatuek Pil-pilean elkartera deitu beharko dute egun hori baino len. Irteeraren prezioa 6 eurotako da. Animatu, primeran pasauko dozue eta!



Orain bi aste Karakaten egin zen bi eguneko irteeran parte hartu zuten gazteak.

74 matrikulatu H.H.I.n

Soraluzeko H.H.I.k, Helduen Hezkuntza Iraunkorrek 2.002-03 ikasturterako egin duen matrikulazioan 74 plentxiarrek eman dute izena. Gehienak "kultura pixkat jasotzera" joaten omen dira, baina ba omen daude oraindik ere idazten eta irakurtzen ikastera joaten direnak ere. Graduatua ateratzera joaten direnak ere asko omen dira.

Hurrengo matrikulazio epea, otsailaren hasieran hasiko da. Beraz, badakizue, zeuen buruak jakinduriz bete nahi badituzue, hortxe duzue aukera.



Bertso eskolaren arrakasta



Joan zen urtean moduan aurten ere oso arrakastasua izan da Ibilixan Ibilixan Bertso Eskolak egin duen matrikulazio kanpaina. Guztira 25 gazte txok baina gehiagok eman dute izena, gehienak mutikoak. Ikaslerik gazteek 9 urte ditu eta zaharrenak berriz 49.

Aurten gainera, nagusien talde bat ere osatu daiteke, jende helduari ere bertso mundua ezagutzeko aukera zabaltea erabaki dute eta.

"Udazkenean Zinea" Gaztetxean

Gaztetxeak "Udazkenean Zinea" egitasmoa jarri du martxan. Egitasmo honen helburua, igandero iluntzeko 19:30etan gazteei elkarrekin egiteko zerbait eskeintzea da.

Igandeko filmaren berri emateko Gaztetxearen atean jarriko da izenburua astean zehar.

Lehen filma Easy Rider izan zen eta 20 bat lagun elkartu ziren.


Gainontzean, Gaztetxeak gogorazi nahi die herriko gazte guztiei, atek zabalik daudela gazte denendako eta animatu eta azaltzeko.

Baserrixen liburua

Soraluzeko Baserrien Gidaliburua-
ren lanak uste baino luzeago jo dute eta beraz, hasiera baten Gaztañerre azokan aurkeztekoa bazen ere, orain gabonak aldera aurkezteko ahalegina egingo dutela jakinarazi dute. Lanik gehien baserriei bizilagun eta guzti atera beharreko argazkiek ematen omen dute.

Egoitz

Javier Alonso Zelaieta
Hortz klinika



Mediku estomatologoa
434 zenb. kol.

Atxuri, 1 - 1. eskuma
Tfnoa 943 75 16 13

Kontulan
Aholkularitza S.L.

Enpresa aholkularitza
Jabe Elkarteak
Aseguruak

Santa Ana, 13 - 1 ezk.
Tlfonoa: 943 75 17 82

20590 Soraluze
GIPUZKOA

Luis Antonio Gomez

*"Norberekerixiak emoten dosta amorru gehixen;
lehenengo geu ta gero bestiak"*

Herrixan oindio denbora gutxi darioan arren, danon ahotan dabil Luis Antonion etorreria, herriko abade berrixa. Pil-pile-aneukoak be, herriko giruari jarraituz, abade etxera jo dogu berakin barriketalditxo bat egitteko asmoz. Oinguan ezin izan dogun arren, ia honetako egunen baten bere kroketa ezagunok probatzen dittugun.

Izen abizenak, edadia eta lanbidia

Luis Antonio Gomez Guridi, 36 urte dittut eta abadia naiz.

Zaletasunak?

Mendirra juatia, irakurtzia eta musikia entzutia .

Koloria, erropia, tokixa, animalixa eta abestixa...

Gorrixa, txamarria, Urbixa, katua eta Xalbadorren Heriotza.

Bapo geratzeko moduko afarixa?

Txuleta edar bat, ta edateko sagardua

Irla desertu batera eruango zittuzun hiru gauza?

Liburu bat, jazteko zeozer ta janarixa.

Nik ez dot ezer gehixao bihar.

Aholkuak emon ala jaso?

Nahixao emotia, baina jasotzen be jakin ein bihar da.

Zoriontsu izateko gakua?

Maittatzia ta maittatzan lagatzia.

Manixan bat?

Beti jertzia gerrixan daroiatela ibiltzia.

Zer eingo ziñuke 100.000 eurokin?

Kotxia aldatu zahartuta daukat eta.

Bestela bihar daben jendiari laguntzeko proiektuetara bideratu, herritik hasitta, hemen be biharra izango da ta.

Sukaldian berezitasunen bat?

Txanpiñoi kroketak oso ondo preparatzen dittut.

Balixo haundiko oparixa ala sorpresia?

Sorpresia, oparixak detaile bat dira ta, batenbat zutaz akordatzen dala.

Zer miresten dozu?

Bertso Begiz

*Heldu orduko galdera pila,
a ze ongi etorrixa!
abadetxian harrapau dogu
gure abade barrixa.
Patxara onekua,
ta bihotz haundikua.
Ez dittu ezaugarri txarrak.
Plaentxiara etorri jakun
abade Oñatiarrak.*

Etxebarri

(Doinua: Iparragirre abila dela)



Luis Antonio Gomez Guridi

Eskuzabaltasuna.

Ta amorru gehixen zerk emoten dotsu?

Norberekerixiak emoten dosta amorru gehixen; lehenengo geu ta gero bestiak

Honen kontra eittia izan zan abade sartzeko arrazoietako bat?

Bai, arrazoietako bat, baina sendotza izan zan momentu garrantzitsuena.

Beti kristau inguruan nenbilen ta apaiz sartzia pentzau nebanian alde kontra baino gehixao nekala ikusi neban.

Zer da abade izatetik gehixen betetzen zaittuana?

Jendiakin tratatzia. Beren arazuekin kargatzen da baina hori deskargatzen be jakin bihar da. Jendiagandik jaso bai, baina emoten be jakin bihar da.

Amaitzeko, Soraluzera etorri berri, zer ein jatzu deigarrixa?

Herri txikixetako girua, jentia alkarrekin bizi dala ta danek alkar ezagutzen dabela. Hori da abade izatetik zailena, jendiakin konpondu bihar dozu eta..

Enara Agirre



Lakuesta

Optika



Ikusmen arazozen frogak eta argibideak

Argazkiak errebelatzen ditugu

Santa Ana, 22 C- behea
20590 Soraluze
Tfnoa 943 75 30 59



Kiru Muntaiak

Blas Elizburu Kortabarria

Sukalde, enpotratu eta tarima flotanteen instalazioa eta salmenta.

Errekaldia, 30
Tfnoa 943 75 13 12
Eskuko tfnoa 670 05 18 20

Argazki zaharra



Dominak askabeittin 1.952 ian

1.952an Askabeittin egin zan mendizaliendako domina banaketia.. Ezkerretik eskumara; M^a Tere Elozegi, M^a Karmen Larrañaga, Sagrario Ondarra, Felix Abarrategi, Juanita Olaizola, Araceli Arizaga Arizaga, Igone Izagirre eta Maria Osa. Aurrekaldean (neskatilak); Agustin Abarrategi eta Arantxa Iriondo. Eskuinean jarrita; Ernesto Lizarralde. Ondo aldatuta dago gaur egun Askabeittuko itturri ingurua.

Egoitz Unamuno

Euskararen ajieri, sendabelarra



Dago Mikel?

GAIZKI



Mikel hor dago?
Mikel etxian dago?

ONDO

Euskeraz, erderaz ez bezela, galdera hori egitterakuan egon aditzak osagarri bat eskatzen dau, lekua edo bestelako osagarri bat.

Beraz, lagunari deittutakuan:

- Mikel **etxian dago?**

Edo bestela egon aditza erabili barik:

- Jarri **leike** Mikel?

- Hor da Mikel ? **Etxian da** Mikel?

Lehiaketa

Zein da argazkixan agertzen dan basarrixa?



Bi lagunendako afari mundial bat irabazi zeinke!!


DEITTU
BIZKOR BIZKOR
943 75 13 04 ra

Goizeko 6:30-etatik
aurrera zabalik!!

Gosarixak eta
pintxo
goxo goxuak !!



Errabal kalea, 15 Tfnoa 943 75 18 34




Limpiezas
industiales

Limpiezas

Trejo, S.L.

Rekalde, 30 behea
Tel.: 943 75 25 57
Faxa: 943 75 25 56
20.590 SORALUZE



**IÑAKI
IÑARRA**

**HARATEGI ETA
URDATEGIA**

Kalebarren 29
Tfnoa 943 75 12 49
Soraluze

**TXOKO
KAFETEGIA**



Kafe ederra hartzeko txokorik onena!

Kalebarren 22 behea, telf: 943751789



aras S.A.L.

DIN arauak jarraituz eta
zehaztasun handiz egindako torniluak

Industrialdea 20-21 Tfnoa 943 75 17 36 - 75 18 03
50 Posta Kutxatila Faxe 943 75 22 95
20590 Soraluze

Etxabe harategia

Euskal txahalkia - Bildotsa

Merkatu plaza, 6-7 postuak
Tfnoa: 943752375

Instalaciones Kalebarren S.L.



**GAS INSTALAKUNTZAK
ETA PROIEKTUAK
KALEFAKZIOA ETA AIRE EGOKITUA
ITURGINTZA OROKORREAN**

20590 SORALUZE TEL. / FAXA: 943 75 23 07 ESKUKO TEL.: 608 67 40 70 / 607 40 37 92
48017 DEUSTU TEL.: 944 75 99 60 POSTA ELEKTRONIKOA: KALEBARREN@INICIA.ES



**EGUNKARIA
ETXERA ERAMATEN DIZUGU
GENIAGO ORDAINDU GABE**

ETXABURUETA, 4
20590 SORALUZE
tlfnoa: 943 75 13 20

ITUR iturgintza


**Iturgintza, Gasa
Berogailuak
Sukaldeak eta Bañuak**



Santa Ana, 20 Behea
Tifonoa: 943 75 12 41
Sakeleko tifonoa: 639 17 96 96

**Lonbide
taberna**

**Pintxoak
Ardoak, kafeak eta likoreak**



Errabal kalea, 9
Tfnoa 943 75 14 07

Bertso afarixa 2002

ESPERIENTZIADUN GAIJARTZAILIAK



URRIAREN 26XAN TXURRUKAN
(9:30ETAN MAHAIXAN)

GIRO PAREGABIA



BERTSOLARIXAK



Unai Iturriaga

Andoni Egaña

Menua: Entsaladia, frituak txuletia, postria, kafia kopia eta purua.

Prezua: 20 Euro. Bazkidiak 18 euro.

Izena Emateko: Gila, Arrano eta Edurtza tabernetan edo Txurrukara deituta (751581)

Azken eguna urriaren 23an.



EXPONTANEOAK



Soraluzeko Udala

ANTOLATZAILIAK



Peugeot 307. Ez da zenbaki bat bakarrik

2002 urteko autoa da European



Ze puntutaraino izan dezakezu konfidantza auto batekin? Punturik goreneneraino. Batu eta irabazi egin dugu. 6 Airbag (aurreko inteligente 2, alboko bi eta kortina moduko sabaiko bi, aurreko eta atzeko bidaiariendako) eta ABSez gainera, zure eskura jartzen ditugu segurtasuneko elementurik aurreratuenak:

EVA (larritasunezko frenatuendako laguntza), REF (frenatuaren banaketa elektronikoa), ECS (garondoko lesioen aurkako babes sistema), oiñ-jartzeko aktiboa,

Norabide habe atzeragarria eta ESP (orekaren kontrol dinamikoa). Xehetasun eta kontrol osoa.

ETORMOBIL

Otaola etorbidea 22

Tel.: 943 20 09 66

EIBAR

307 
PEUGEOT